

408 zenbakia: 2000ko maiatzaren 5a  
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria


# Berrigara

## Erleak lanean

Udaberrian ere, herriko erlezainak erne

**MARKIEGI**  
autoak

Leizeaga 1 (S. Lorentzo Industri Poligonoa)  
BERGARA Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76

**FIAT** *Alfa Romeo* 

## Halakotik... halakora



# LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:

Batxilergo Teknologikoa, **Eskola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



**BATXILERGOKO  
INFORMAZIO BILERA:**  
maiatzaren 8an, astelehena,  
18:00etan  
Almen Ikastolan



**Arizmendi**

Larrin Plaza, 1  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)



## Esnatzeko ordua da

Mikel Elkorobereizbar / Kazetaria

**G**eroz eta garbiago daukat gaur egungo gizartean gauza bat komunikabideetan iriteten ez bada, ez dela erreala eta irreala bada ere, komunikabideek egiten duten lanari esker erreala bihurtzen dela.

Demagun, andaluziar bat kartzelan sartzen dutela eta Euskal Herrira eramaten dutela kartzelaldia pasatzera. Gizon horrek familia, lagunak edo ezagunak dituela eta, noski, bera bisitatzera Andaluziatik Euskal Herrira etortzeko zailtasun handiak dituztela. Gainera, bera dagoen kartzelako zuzendariari burutik pasatu zaiolako, bakarrik bi orduz irten daiteke patiora eta gainontzeko orduak bere ziegan bakarrik pasatu behar dituela.

Hori guztia ikusirik, bere egoeratik protestatzeko gose greba egitea erabakitzen du. Gizon horrek 20 egun daramatza, dagoeneko, gose greban, eta bere emazteak Maria Teresa Camposen programara deitzen du bere senarraren egoera zein den azaltzeko. Egoera azaldu ondoren, espainiar askok deitzen dute telebistara euren haserrea azaltzeko egoera horren aurrean, eta hori ikusirik, CamPOSEK hurrengo egunean Martute-

neko kartzelara kazetari bat bidaltzen du preso horren egoeraren berri emateko. Noski Espainiar "demokraziaren" izenean kamarek gose greban dagoen presoak elkarrizketatzen dute. Gizarajoa egoera benetan tamalgarrian dago; 10 kilo galdu ditu, dagoeneko, eta hezurra eta azala besterik ez zaio ikusten. Irudi horien ondoren, ministro arduraduna Camposen programan elkarrizketatzen dute, eta gizona Andaluziara eramateko konpromisoa hartzen du: "ez baita gaur egungo espainiar demokrazia bezain sistema aurreratu batean horrelakorik onartu behar, eta giza eskubideak beti errespetatzen ditugunez, bere familiarengandik gertuenen dagoen espetxera eramango dugu" dio Espainiako ministroak.

*"Telebistatik bota ez arren, euskaldun askok azkenengo hiletan lagunak eta senideak hezur eta azal bihurturik ikusteko aukera izan dugu"*

Hurrengo eguneko programan, Campos eta bere kontertulioek zein ondo eta zein handia den espainiar demokrazia aipatuko dute behin eta berriz.

Zoritxarrez istorio horiek ez dira irrealak, eta gure artean pasatzen ari dira, baina espainiar eta Euskal Autonomi Erkidegoko komunikabide konstituzionalistek isilarazi egiten dituzte. Ez dute gauza horiez ezer jakin nahi, eta, gainera, espainiar "demokraziaren" defentsan informazio faltsua eta manipulatuak zabaltzen dute. Horientzat pertsona bat euskalduna eta, gainera, abertzalea baldin bada, 50 egunetik gora gose greban egotea ez da notizia, eta, noski, gutariko askok hori sinistu egiten dugu. Halere, egoera hori telebistatik ikusteko aukera ez dugu izan. Baina telebistatik bota ez arren, euskaldun askok azkenengo hiletan lagunak eta senideak hezur eta azal bihurturik ikusteko aukera izan dugu. Ez hori bakarrik; egoerak horrela jarraitzen badu, gehiago ikusteko aukera izango dugu. Hil honetan euskal presoek euren alde zerbaitekin dezagun eskatu dute, eta eskaera telebistan irten ez den arren, guztiok elkarrekin lan egiten badugu, irtingo delakoan nago.<

### barruan



**Mariasun Mujika**

Komite Internazionalistetakoa

*"Garrantzitsua da komunitate baztertuei gure elkartasuna adieraztea"*

8.



**Pedro Jausoro**

BKEko entrenatzailea

*"Azpiko kategorietan jokalarien jarrera lantzeari lehentasuna ematen diot"*

23.



**Hibai Careaga**

Gazte lokalaren asanbladakoa

*"Lortu dogun inportantiena da: gazte jendia alkartzia eta elkar ezagutzia"*

29.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK



**BEKAK**  
Euskadiko bekak eta diru laguntzak.  
Eusko Jaurlaritzak. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiak.  
EAEko udalek. Epea: urtean zehar.  
**GKEentzako diru laguntzak.**  
Bergarako Udala. Gipuzkoako irabaziamorik gabeko GKEak.  
Epea: maiatzak 10.

**LEHIAKETAK**  
**Gure Arteak.**  
Eusko Jaurlaritzak. EAEn bizi diren artista plastiko gazteentzat.  
Epea: maiatzak 31.

**LAN ESKAINTZAK**  
**Nafarroako Foru Polizia.**  
Nafarroako Foru Komunitatea. Karrera funtzionarioak. Eskola Graduata, L.H.I edo baliokidea. Oposizio bitarteko plaza. Epea: maiatzak 11.  
**Azterriko lan-eskaintzak, lan-oposaketa publikoak eta asteburuko prentsan agerturiko lan eskaintzen dossierra:** Gazte Informazio Gunean edo Kultur Etxeko panelean.  
**Interneteko lan-eskaintzak.**  
Titulazio edo arlo ezberdinetako lan-eskaintzak edo praktikak.

**EKITALDIAK**  
**Udalekuak 2000.**  
Gipuzkoako Foru Aldundia. 7-13 urte bitartekoentzat. 2. zozketan parte hartzeko epea: maiatzaren 12tik 18ra.  
**Udalekuak.** Enfitate pribatuak. Uztailan, abuztuan eta irailan. Plazak bete arte edo txandak hasi arte.  
**Oporraldiak 2000.** Gipuzkoako Foru Aldundia. 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Trukaketak (euskaraz zein erdaraz), euskara, ingeles eta frantseseko txandak. Zozketarako izena-emateko epea: apirilaren 18tik maiatzaren 10era.

**IKASTAROAK**  
**Udako ikastaroak.**  
EHU. Mintegiak, jardunaldiak, ikastaroak. Gaiak: Medikuntza, Hezkuntza, Internet, Zuzenbidea, Psikologia, Hizkuntzalaritza eta abar. Izena emateko epea: maiatzaren 3tik aurrera.

**KARNETAK**  
Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
BERGARAKO GAZTE  
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)  
TELEFONOA: 943 77 91 57.  
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00  
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

**Txankulua**  
Zurezko oiñetakoak.  
- Gure mutikotan ate  
onduan egote zien  
txankuluak.



JOSU OKINA

## Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate  
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 27</b>	7	4,5	7,3	10	9	17,3
<b>Eguakitza 28</b>	13,5	5	2,2	14	7	1,6
<b>Zapatua 29</b>	15	5	-	20	6	-
<b>Domeka 30</b>	16	9	-	21	9	-
<b>Astelehena 1</b>	20	7,5	-	25	8	-
<b>Martitzena 2</b>	21	13,5	-	26	10	-
<b>Eguaztena 3</b>	22,5	13	-	27	7	-

## Farmaziak

**Eguakitza 5:**  
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

**Zapatua 6:**  
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

**Domeka 7:**  
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

**Astelehena 8:**  
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

**Martitzena 9:**  
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

**Eguaztena 10:**  
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

**Eguena 11:**  
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

## Ogia

**Domeka 7:** Ogizun.

## Telefonoak

**OSASUNA / LARRIALDIAK**  
SOS deiak 112  
DYA 943 78 71 57  
Gurutze Gorria 943 76 55 76  
Larrialdiak 943 46 11 11  
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40  
Anbulantzia 943 55 49 62  
Udaltzaingoa 943 77 91 06  
Ertzaintza 943 76 53 40  
Suhiltzaileak 943 78 28 00  
Osasun Etxea 943 76 24 40  
Arrasateko ospitalea 943 03 53 00  
Asepeyo 943 76 16 43  
Pakea 943 76 13 49  
Angiozarko medikua 943 78 90 27  
Antzuolako medikua 943 76 62 23

**GARRAIOAK**  
Euskotren 943 45 01 31  
PESA 902 10 12 10  
Taxiak 943 76 19 50  
RENEF 943 28 35 99

**UDALA**  
Udaltzatea 943 77 91 00  
Udal Artxiboa 943 77 91 32  
Igerilekuak 943 76 20 51  
Kultur Etxea 943 77 91 58  
Liburutegia 943 77 91 62  
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia 943 76 14 92  
Erregistroa 943 76 13 15  
Jardun 943 76 36 61  
Jubilatuaren Etxea 943 76 21 40  
Postetxea 943 76 26 85

## zorion agurrak



**Miren Larrañaga**  
5ean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Ainhoa eta Mikel.



**Ander Uriarte**  
10ean 6 urte.  
Urte askotarako eta muxu bat! Aita, ama eta Amaia.



**Aitor Lazkano**  
7an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Ainhoa.



**Andoni Mujika**  
7an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ruth Mancho**  
5ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Gurasoak, Sara eta lagunak.



**Estitxu Lobato**  
6an 16 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Ana Usabiaga**  
9an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Etxezarreta**  
10ean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Miren Gonzalez**  
9an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



**Maitane Casas**  
10ean 8 urte.  
Urte askotarako!  
Aitabxo, amatxo eta Haizea.



**Uxue Agirre**  
8an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Mikel Lasa**  
11n 7 urte. Urte askotarako!  
Aita, ama eta lehengusu-lehengusiniak.

URTEURRENA

Marcelino  
Garmendia Astarloa

Lehen urteurreneko meza  
domekan, maiatzak 7,  
goizeko 11:30ean,  
Antzuolako parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Mikel Aguilu**  
10ean 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta  
Martokoko lagunak.



**Yeraí Gomez**  
10ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Patxi Ugalde**  
6an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Gotzon Gimenez**  
11n 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Ane Barragan**  
10ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta  
anaia Ion.



**Sara Arietaleaniz**  
11n 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

**hildakoak**

Aste honetan ez dugu hildakoen berririk jaso, ez Antzuolan, ez Bergaran.

*Eskelak, urteurrenekoak eta eskertzak eguazten eguerdira arte hartzen ditugu.*

*Hurrengo alean, maiatzaren 12tik 18ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

**jaiotakoak**

**BERGARA**

**Maitane Ot Genetxea**

Martxoak 12

**Samuel Greer Martin Garziandia**

Apirilak 8

**Irene Etxabe Manterola**

Apirilak 21

**Mikel Zubizarreta Garitano**

Apirilak 23

**Asier Garcia Aranzabal**

Apirilak 25

**Maitane Romero Zeziaga**

Apirilak 25

**urbanoa**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**Geralekuak:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jate-txea.

**Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**Geralekuak:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

# Berrigarak, irakurleei:

Datorren astelehenetik aurrera, maiatzak 8,  
Berrigarako erredakzioa Irizar jauregian egongo da  
Barrenkaleko 33 zenbakian.

Zorion agurrak eta eskelak ipintzeko, erretratu zaharrak ekartzeko eta bestelako edozein kontsulta eta abarretarako, zatozte bertara! Ongi etorri denoi!



**Sarrera**

## ANTZERKIA

► **Tanttaka** taldearen **"Novecento: ozeanoko pianista"** gaur, eguakitza, 22:30ean Elorrioko Arriolan.

## MUSIKA

► **Udal Musika Bandaren kontzertua** domekan, 12:30ean, Udal Pilotalekuan. Aurretik kalejira izango da.

► **Andre Williams eta Atom Rhumba**, hilaren 13an, Jam aretoan.

► **Marta Campos** Kubako kantaria, hilaren 12an, 22:30ean, Elorrioko Ateneoan.

## ERAKUSKETA

► **Txomin Pinillaren margo erakusketa** Kultur Etxean, maiatzaren 9tik 21era.

► **Fernando Arenazaren "Irtenbiderik bai?"** erakusketa Donostiako Digitex arte galerian (Usandizaga kalea, 5) ekainaren 3ra arte.

► **Joxan Bilbaoren margo erakusketa** Donostian, Kutxako aretoan (Boulevard, 1) maiatzaren 18ra arte.

## LEHIAKETAK

► **Kartel lehiaketa.** Euskal Antzerki Topaketaren XVIII. edi-

## KONTZERTUA

### Sonny Vincent

- Gaur, eguakitza, 22:00etan
- Go-Jam aretoan
- Sarrera: 800 PTA.

Sonny Vincent estatubatuarra bisitari izango dugu gaur gauean Go-Jam aretoan. Vincentek "Parallax in Wonderland" bere azken diskoa aurkeztuko du. Punkrock estiloaren barruan kokatzen da lana, eta, beste batzuen artean, Joey Ramonek bere herrikidearen konposizioak goraiatu ditu: "bere musika gordina, basatia da. Zerbait esateko duen konpositore bikaina da Sonny eta ni bere jarraitzaileetako bat naiz". Kritikaren iritziz, iparramerikarrak kaleratu duen diskorik onena dugu hau, eta hori esatea ez da gutxi bere ibilbidea kontuan izanez gero.

New Yorken jaioa, Vincent-ek kitarra jotzeko erraztasuna azaldu zuen txiki-txikitatik, eta 14 urte zituenean eskaini zuen bere lehen kontzertua. Besteak beste, The Stooges, Velvet Underground, MC5 eta Dead Boys taldeekin jo izan du harrezkeror. 1976. urtean, Sonny Vincentek "Testors" taldea sortu zuen, eta 1981n, "Sonny Vincent and The Extreme" taldearen sorrera etorri zen. 87an, Bob Stinsonekin batera, "Model Prisoner" taldea osatu zuen; nagusiki Minnesotako estatuan jotzera

mugatu ziren. Kanadan jotzeko debekua jaso zuten sasoi hartan. Handik bi urtera, "Shotgun Rationale" taldearekin, "Who do they think they are" diskoa kaleratu zuen. Era berean, Sonnyk Moe Tuckeren "I spent a week there" diskoan kolaboratu zuen, Lou Reed edo Sterling Morrisonekin batera. Argi dago, beraz, geldirik egoten ez den horietakoa dugula Sonny, eta gaur, Go-Jamera joaten direnek frogatu ahal izango dute hori. Teloneroak, Factoria 77 bergararrak izango dira.



Sonny Vincent kitarrajole iparramerikarra.

zioari begira, Azpeitiko udalاک kartel lehiaketa deitu du. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 15ean bukatuko da. Argibide gehiago, 943 15 72 00 zenbakian.

► **III. Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa.** Kartelen

gaia "Zezenak Bergaran" izango da, eta lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira, maiatzaren 22tik ekainaren 4ra bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Argibide gehiago, Kultur Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

► **Bergara Hiria argazki lehiaketa.** Zuri-beltzeko eta koloretako argazkiak onartuko dira (mota bakoitzeko lau gehienez). Lanak 30x40 cm.ko kartulinar aurkeztu beharko dira. Kategoria bakoitzeko hiru onenentzat eta herriko onenentzat ere sariak izango dira.

**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



☎ 943 76 20 61

Lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira maiatzaren 31 baino lehen. Argibide gehiago 943 77 91 58 zenbakian.

## DEIAK

► **Elkartasun eguna** bihar, zapatua, Bilbon, Gestorek antolatuta: musika emanaldiak, erakusketak, herri kirolak eta beste hainbat ekitaldi izango dira. Sarrerak eta autobus txartelak Arranon eta Pol-Polen salgai.

► **Xipizaro ludoteka.** Udaleku irekietarako izen-ematea maiatzaren 8tik 19ra bitartean zabalik, 10:00etatik 12:00etara. Informazioa: 943 76 23 76.

► **Mahai-ingurua: "Gizarte integrazioa gaur"**, eguaztenean, hilak 10, 19:00etan Mariaren Lagundian. Partaideak: Iñaki Madinabeitia (Aransgi), Patxi Izulain (Aguifes) eta Mariaje Unamuno (Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuko).

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 10, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Bestalde, bailarako batzar orokorra datorren urriaren 8an izango da azkenik, Arantzazuko Hospederian.

► **Kilometroak 2000.** Azpeitiko Ikas Berri ikastolak urriaren 1ean egingo den Kilometroak 2000ko arropak eta konplementuak salgai jarri

ditu Barrenkalen (lehengo Kutxan), 17:00etatik 19:30era.

## JAIK

► **Irukurutzeta eguneko erromeria** domekan, maiatzak 7. Meza izango da 11:00etan Pago bedeinak; 12:00etan, salda, txorizua eta ardoa banatuko dira; 13:30ean, Irukurutzetara igoera egingo da, eta 14:00etan, bazkaria. Ondoren, trikitilariekin erromeria izango da.

## KINTADAK

► **1936an jaiotakoen eguna** maiatzaren 6an ospatzekoa zen aurten, baina datorren urtera arte atzeratzea erabaki da, 65. urteurrenarekin bat egiteko.

► **1964an jaiotakoen afaria** bihar, zapatua, Tartufon. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Plazako kioskoan edo 607 41 04 09 telefonoan.

► **1965ean jaiotakoen afaria** bihar, zapatua, Tartufon. Aurretik, 19:00etan, Pol-Polen bilduko dira. Izen-ematea Etxagi, Pol-Pol eta Popis tabernetan.

► **1960an jaiotakoen afaria** maiatzaren 27an, Tartufo jate-txean. Aurretik, 21:15ean, taldeko argazkia aterako da. Izen-ematea (2.000 pezetako aurre-rapena) Tartufo jatetxean Kutxako 0123018798 kontu korrante zenbakian.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**Erin Brockovich**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**Mientras nieva sobre los cedros**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.  
**ARRASATE. Alai zinema**  
**Las normas de la casa de la sidra**

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

#### Biziaren arbola

Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.  
**ARRASATE. Amaia**  
**My family**  
Eguena: 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

**Scream 3**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

**Acuerdos y desacuerdos**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

**La leyenda del pianista en el oceano**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.  
**Condenados a fugarse**  
Domeka: 17:00.

### ERIN BROCKOVICH

**Zuzendaria:** Steven Soderbergh.  
**Aktoreak:** Julia Roberts, Albert Finney, Aaron Eckhart. ≥13 urte  
Filme hau estrainatu zenetik, izugarrizko arrakasta izan du takiletan, batik bat Julia Roberts aktoreak dituen jarraitzaileei esker. Benetako istorio batean oinarrituta, langabezian dagoen emakume baten borroka kontatzen zaigu; abokatu baten bulegoan lanean hasi eta kutsatutako urak ezkututzen dituen konpainia bati aurre egingo dio, oztopo ugari gainditu ondoren.

### MIENTRAS NIEVA SOBRE LOS CEDROS

**Zuzendaria:** Scott Hicks.  
**Aktoreak:** Ethan Hawke, James Cromwell, Richard Jenkins. ≥13 urte  
Scott Hicks zuzendariak (*Shine*) David Guterson idazlearen best-sellerean oinarritutako filmea errodatu du oraingoan. San Piedroko irlan, biztanle bat hilik azalduko da, eta hildakoaren lagunmina izango da susmagarri nagusia. *Ishmael Chambers* kazetariak (Ethan Hawke) kasua jarraitu beharko du, iraganeko kontuek berebiziko garrantzia izango dute...




BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

## BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

**Mariasun Mujika Komite Internazionalistetako kide da. Aurtengo udako brigadak joan zen eguaztenean aurkeztu ziren. Honakoak dira: Kolonia, Nikaragua, Kuba eta Mexiko. Mariasunek bertan egin beharreko lanei buruz hitz egin digu.**

**G.** Zein da Komite Internazionalisten helburua?

**E.** Elkartasun politikoa adieraztea. Brigadetan, hainbat herrialdetara joaten gara bertako errealitatea ezagutzeko. Baina hau aitzakia bat baino ez da, gure azken helburua, errealitate hori ezagutu ondoren, hemen ezagutzea ematea baita. Hemengo jendea sentibilizatzea, azken batean, Ertamerika eta Hego Amerikako injustiziak salatuz.

**G.** Zer eskaintzen diezue hango herritarrei?

**E.** Gu joaten bagara, eurak eskatzen dutelako da. Herrialdearen arabera, lan ezberdina egiten dugu, baina hemengo herritarren presentzia soilak, asko laguntzen die. Joaten garen zonaldeak, zonalde nekazari edo indigenak dira. Komunitate hauetara joatea, eta batez ere indigenen komunitateetara, oso garrantzitsua da, euren bizimodua ezagutu eta geure etxe eta herrietara itzultzen garenean ezagutzea emateko. Kontuan hartu, komunitate hauek euren herrialdeetan ere marginatuak eta baztertuenak direla. Hori horrela, solidaritatea adieraztea oso garrantzitsua da. Horixe da eurek eskatzen dutena: solidaritatea, elkartasuna.

Hego zein Ertamerikako herrialdeei buruz ari garenean, lurralde pobreak direla datorkigu burura. Komiteetakook, aldiz, hau pentsatzen dugu: pobretuta

MARIASUN MUJIKA  
Komite Internazionalistetako kidea

*“Garrantzitsua da komunitate baztertuekin solidarizatzea”*



Mariasun behin brigadista joan zen, eta, ordutik, Komiteetan dugu.

daudela, bai, baina horretan erantzukizun oso handia herrialde garatuok dugula.

**G.** Zela egiten dituzue kontaktuak?

**E.** Beti dugu erreferentziaren bat, talde edo erakunderen bat, eta delegazio bat bidaltzen dugu. Gure lana azaltzen diegu eta eurek euren. Bat bagatoz, hartuemanetan hasten gara.

**“Hego zein Ertamerikako herrialdeak pobretuta daude, eta horretan herrialde garatuok erantzukizun handia dugu”**

**G.** Aurtengo udako brigadak non izango dira, eta zein lan egingo duzue?

**E.** Nikaraguan, Kolonbian, Mexikon eta Kuban. Nikaraguaren kasuan, hezkuntza arloko AEPCFA erakundearekin egingo dugu lan. Hauen hezkuntza sistema nekazaritzarekin dago lotuta. Mitch hurakanak desforestatze handia ekarri zuen; hori dela eta, aipatutako erakundeak duen plana zuhaitzak landatzea da, baina ez edozein, fruta-arbolak baizik. Honela, brigadisten lana, zuhaitzak landatzea izango da, bertako nekazal komunitateetan bizitzarekin batera. Hau brigadaren parte bat da; bigarrenean, lan fisikoa utzi eta Managuako hainbat erakunderekin izango dute harremana: sindikatuak, emakume taldeak, giza eskubideen aldeko erakundeak... Brigada guztiak daude bi atal hauetan banatuta.

Mexikori dagokionez, indigena eta nekazariekin egongo gara. Kasu honetan, lan fisikorik ez da egongo; presentzia hutsa izango da, Mexikon dagoen erreprezioa oso handia delako bi sektore hauentzat. Lau erakunderekin egongo gara Mexikon: Taskalan, nekazariarekin; Veracruz, mendiko komunitateetan; Guerreron eta Chiapasen.

Kolonbiako kasuan ere presentzia izango da. Herrialde honetako erreprezioa ere izugarria da, nahiz eta guri heltzen zaigun informazio bakarra drogarena izan. Kolonbiaren kasuan, brigadak estatu mailako beste batzuekin elkarlanean izango dira.

Kubari dagokionez, kontrapartida alderdi komunistak da. Inguru nekazarian arituko gara, nekazaritza produktuen enpresa komertzializatzaile batean.



# GASTON Y DANIELA



**Inglesina**®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

**Pizza aukerarik zabalena!**



Artekalea 1, BERGARA.

**Zapatu eta domeketan eguerdian zabalik'**

**Asteburuetan etxex-etxeko zerbitzua**

**ETXERA ERAMATEKO EGUNEKO MENUA ere badaukagu!**

**ENTZALADAK**

- ENTZALADA MISTOA. 600
- ARROZ ENTZALADA. 625
- OILASKO ENTZALADA. 650
- PASTA ENTZALADA. 625
- GANBA KOKTELA. 700
- PIPER ETA ANTIXOA PINTXOA ROKEFORT SALTSAZ. 750



**PIZZAK**

- MARGARITA (Oreganoa, piperbeltza, albaraka). 775
- TIPULA. 850
- FUNGHI (Txanpinoiak). 975
- BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 975
- PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1.125
- ROKEFORT. 950
- 4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1.075
- NAPOLI (Antxoak, olibak). 950
- TONNO (Atuna). 975
- DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1.100
- IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1.125
- PROSCUITO (York urdaiazpikoa). 1.000
- MEXIKARRA (Okela pikatua eta berakatzarekin). 1.075
- 4 STACCIONE (York, alkatxofak, txanpinoiak). 1.075
- BOLOGNESA (Okela pikatua). 1.075
- EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1.075
- BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1.125
- ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza, pikillo piperrak). 1.125
- HONDDOAK. 1.500
- TROPIKALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1.075



**Orain telefono zenbaki berria:**

**943 76 25 37**

**PASTA**

- SPAGHETTI BOLOGNESA. 875
- SPAGHETTI CARBONARA. 875
- SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN ETA PIKANTEAREKIN. 875
- FUSILLI ROSSA. 900
- TAGLIATELLE. 900
- RIGATONI 4 GAZTA. 900
- UKONDOA ESPINAKA SALTSAKIN. 900
- OKEL eta GAZTA RAVIOLIAK. 950
- NIDOS AL PESTO. 900
- LASAGNA. 950
- BARAZKI eta OKEL KANELOIAK. 900
- KALABAZIN BETAOK. 900
- ARRAIN LASAGNA. 950



Ebaki hemendik eta eraman beti aldean ekoiztasiz zure hozkailuan!



## Elorregiko Gurutze Gorriak larrialdietako ambulanzia zerbitzuari ekin dio berriz

**Gipuzkoako Gurutze Gorria, larrialdietako ambulanzia sarera berrinkorporatu da. Hori dela eta, San Prudentzioko postuan, larrialdietako zerbitzuetarako ambulanzia bat jarriko da martxan astelehenetik aurrera.**

1898. urte amaieran utzi zion Gipuzkoako Gurutze Gorriak larrialdietako zerbitzua eskaintzeari. Arrazoia ekonomikoa izan zen. Horregatik, San Prudentzioko dagoen postuak, ez du azken urte eta erdian larrialdietara ambulanziaz irteerik izan, Gipuzkoan dauden gainerako 17 postuetan gertatu den bezala. Ondorioz, Debagoiena osoko larrialdi deiak kubritzeko, DYAKo ambulanzia bat baino ez da egon, "oso gutxi bailaran dauden larrialdi kasuak kontuan hartuta", Juan Ramon Barrenak, San Prudentzioko postuko giza errekurtsoko zuzendariak adierazitakoaren arabera.

Hori izan da, hain zuzen ere, zerbitzua berriz martxan jartzeko arrazoi nagusia



Elorregiko arduradunak Debagoiengan dauden larrialdi kopurua handia delako hasiko dira berriz larrialdietako ambulanzia zerbitzua eskaintzen.

Barrenak esan bezala: "Eusko Jaurlaritzarekin erdi bideko akordio batera heldu gara, eta nahiz eta larrialdi zerbitzua defizitarioa izan, bailarari eskaini beharreko zerbitzua dela ikusten dugu, eta guk ere ambulanzia batekin ekingo diogu zerbitzuari".

Larrialdietako zerbitzua martxan jartzeko beste arrazoi bat, boluntarioak izan dira. Izan ere, azken urte eta erdi honetan, boluntarioen kopurua asko jaitsi da Gurutze Gorrian. Azken ba-

tean, larrialdietako aktibitatea da boluntarioendako erakargarriena, eta hau egon ezean, beste toki batzuetara joaten direla azaldu du Barrenak.

1998. urte amaieran zerbitzua etetea Gipuzkoan dauden 18 postuek aho batez erabaki arren, berrinkorporazioa partziala izan da, postu bakoitzak bere alde-rik erabaki du ekin ala ez. Hamazortzi horietatik, Elgoibar, Errenderia, Donostia eta Elorregiko postuak berrinkorporatu dira.

Honekin guztiarekin, orain arteko zerbitzu sozialaz gain, larrialdietako ambulanzia zerbitzua ere egongo da Elorregin. Zerbitzua, hogeita lau ordukoa izango da, eta ambulanzia gidariak gain, ATS bat eta boluntario bat ere egongo dira lanean Bergarako auzoan.

Hemendik aurrera, beraz, bi ambulanziaz eskainiko dute larrialdi zerbitzua Debagoiengan, DYAKoa bata, eta Gurutze Gorrikoa bestea.



Eguraldi txarrarekin, Atsedan Txaboletan bazkalduko da.

ARTXIBOA

## Irukurutzetako erromeria igandean

**Irukurutzetako** erromeria ospatuko da datorren igandean, maiatzak 7. Goizeko 11:00etan, pago bedeinkatua meza egongo da. Mezaren ondoren, 12:00etan, salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira hurbildutako guztien artean. 13:30ean, Irukurutzetara igoera hasiko da, eta iritsi ondoren, eguerdiko 14:00etan nork bere etxetik eramandako janariarekin bazkari ederra egiteko aukera egongo da. Bazkariaren ostean, trikitilariak erromeria eskainiko dute.



Eibar eta Gasteiz lotuko dituen autopistako lanak dira garraio azpiegitura handien adibide bat.

ARTXIBOA

## Abian da “Gure amaren etxea” defendatzeko herri ekimena

**Ingurugiro** batzordeak antolatuta, “Geroa lurretik hasi” izenburuko hitzaldia izan zen eguen arratsaldean Kultur Etxean.

Hizlaria Alberto Frias, Eguzkiko kidea izan zen, eta gaur egun garapena ulertzeko dauden joera ezberdinak jorratu zituen. Friasek hitzaldian esandakoaren arabera, konpetibitatea eta modernizazioaren izenean Euskal Herria “Euskal Hiri” bihurtzen ari da, hau da, “identitate zeinurik gabeko hiri neoliberal izugarria”. Hizlariaren iritziz, azpiegituren eraikitze etengabea dela eta, (AHT, euskal Y, edota parke eolikoak esaterako), Euskal Herria-

ren paisaia aldatzen ari da erabat. Aldaketa horren atzean, baina, beste aldaketa sakonago bat dago Friasen arabera: “gure ohiturak, kultura eta bizimodua dira sakonean aldatu nahi direnak”. Honela, inposatzen ari zaigun lurralde-antolakuntza dela medio, ezin da euskal proiektu nazionalik eraiki, Eguzkiko kidearen esanetan.

### SINADURA BILKETA

Erronka horri aurre egiteko, lurraren defentsan jardungo duen herri ekimen zabal baten beharra azpimarratu zuen Friasek, lurraren aldeko konpromiso baten inguruan biltzeko gai izango de-

na, eta eztabaida guneak nahiz elkarguneak sortuko dituena.

Helburu horrekin, gizarteko hainbat esparrutatik datozen 100 herritar ezagunen sinadurak jaso dira (Bergaran, Maite Aristegi eta Jose Luis Loidirenak). Kale-ara ere luzatuko da sinadura bilketa hau. Azken batean, energia zein garraio azpiegitura handiek, nekazari ingurunea okupatzeko egitasmoek eta merkatal azalera handiek gure lur, kultura, gizarte eredu eta egitura ekonomikoan itzulezinezko ondorioak sortzen dituztelako eta “gure amaren etxeak zutik iraun dezan lurra defendatu behar dugulako”.

## Alzheimerdunak eta gutxitu fisikoendako oporraldiak

**Gipuzkoako** Foru Aldundiko Gizartekin-tzak, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzailearekin eta Gipuzkoako Alzheimer Senitartekoen Elkartearekin batera, bi oporraldi antolatu ditu elkarte hauetan parte hartzen duten kideendako.

Gutxitu fisikoentzat, hamabost eguneko hiru oporraldi izango dira, maiatzaren 20tik irailaren 30era arte, Blanes eta Benidormen. Eskabi-deak Donostiako egoitzara zuzenduko dira.

Alzheimerren kasuan, hamabost eguneko hiru egonaldiak, maiatzaren 22tik 19ra arte izango dira, Alfaro eta Islan. Izena, Donostian eman behakor da.

## Lau bergarar daude gose greban

**Eukene Gracia** eta Xabier Oregi presoak lotu zitzaizkion zapatuan, euskal presoen kolektiboa egiten ari den gose grebari. Bestalde, Inigo Elkoro eta Mikel Askasibarrek hilaren 24an ekin zioten. Gracia eta Oregi-ekin, beraz, lau dira une honetan gose greban dauden bergararrak.

**U**  
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

# MUJIKA

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8    943 76 28 67    BERGARA

**IRURAK PINTURAK S.L.**

ERA GUZTIETAKO LANAK	PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA	HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA	IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

# Berrigara

408 zenbakia.  
2000ko maiatzaren 5a.

Irizar jauregia. 20570 Bergara  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketak:** Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia: Plaza y Janes

Tirada: 5.300 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Begarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia z/g 20570 Bergara.  
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### BEHEKO ESTAZIOTIK KIROLDEGIRAKO BIDEA

Berrigararen behin baino gehiagotan irakurri ditut herritarren kezak, Beheko Estaziotik Kiroldegira bitarteko ibilbidearen argiztatze faltaren inguruan. Kontua da joan zaigula aurtengo negua, eta Udalak ez duela ezer egin arazoa konpontzeko. Orain, uda partean sartu berri garenez, beranduago iluntzen du, eta pentsa dezakegu datorren urtera arte ere berdin jarraituko dugula Ozaetako bizilagunok.

Udaleko agintariak, egunen batean, Beheko Estaziotik Kiroldegira doan tartea eta hortik aurrerakoa ere (Zabala jatetxeko rekta egoera berean baitago) oinez egitera gonbidatu nahi ditut, ikus dezaten auzokideok ja-


satzen dugun egoera. Ez guk bakarrik. Gazte asko eta asko dira egunero Kiroldegira oinez joaten direnak, eta baldintza negargarrietan egin behar izaten dute ibilbide hori, iluntzen duenean ez baita bi metrora dagoena ere ikusten. Istripu bat gertatu arte itxaron behar ote dugu Udala zerbait egiten hasteko? Badirudi beste proiektu batzuei aurre egiteko diru faltarik ez dagoela. Eta farola gutxi batzuk jartzeko ez, ala? Lerro hauen bitartez, Udalari dagokion neurriak lehenbailehen hartzea eskatu nahi diot, ordua da eta arazo horri soluzioa topatzeko. Ala bigarren mailako herritarrak gara herri erditik kanpo bizi gare-nok?

J. Larrañaga

### BERRIGARAKO ERREDAKZIOA IRIZAR JAUREGIAN

Berrigarako erredakzioa Irizar jauregian (Barrenkaleko 33. zenbakian) izango da datorren astelehenetik aurrera, maiatzak 8. Beraz, zorian agurrak, erretratu zaharrak eta bestelako oharrak jartzeko, bertara zuzendu beharko zarete aurrerantzean. Guztiok ongi-etorriak zarete Berrigarako erredakzio berrira.

## tira biraka alex ugalde



atrebentzia ezpada

bai, esan!

## "Gran Hermano" programa berrixaren gaiñian ze iritzi daukazu? Parte hartuko ziñuke?



**Naiara Beistegi**

Intimidadia hola agertzia ez jat ondo pentsatzen. Ez jat interes berezirik ikusten, gaiñera, holako saio bati. Ez neuke parte hartuko.



**Juan Carlos Hervas**

Ez jat gustatzen, eta ez jat iñungo interesik ikusten. Kuriosidadez ikusi izan dot, baiña ez neuke parte hartuko.



**Eba Etxabe**

Pasada bat iruditzen jat holakuak telebisiñuan agertzia. Morbo billa doiaz, eta ez nuke iñola be parte hartuko.



**Aritz Beistegi**

Ez jat gaizki pentsatzen. Holako saiuen eskarixa baldin badago, ba... Nik, dana dala, ez neuke parte hartuko.



**Jabier Oiarzabal**

Espektakulo moduan harrera ona dauka, baiña ez jat gustatzen. Pentsatzen jat erdi preparauta dagola. Ez neuke parte hartuko.



**Maria Arana**

Ikusi dot, baiña ez jat gustau. Engantxatzen daben programia da, baiña ez dauka interesik. Ez neuke parte hartuko.




Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

### UDAL LIBURUTEGIKO EGUNKARIEN ESKAINTZA

**J. Garcien** bisita jaso dugu aste honetan BERRIGARAKO erredakzioan. J. Garcia sarritan etortzen da Kultur Etxera, Udal Liburutegira, eta ohitura dauka bertan izaten diren egunkariei errepasoa egiteko.

J. Garciak eskerrak eman nahi dizkio liburutegiari eskaintzen duen zerbitzuagatik, baina, aldi berean, astelehenetako eta domeketako egunkarien falta somatzen du. Hemeroteka zerbitzua eskainiz gero, egun guztietako egunkariak kontsultagai egon beharko lirakeela dio Garciak, astelehenetik domekarakoak, Arrasateko Monterroneko liburutegian egiten den bezala, esate baterako. Bere us-tetan, liburutegiak horrelako detailetoak ere kontuan izan beharko lituzke.

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1  
943 76 72 73

Mizpildi 8  
943 76 12 32

**FRONTOI**



**TABERNA**

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34

**CAMACHO**

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35




gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

**POL-POL**

**Taberna**

☎ 943 76 07 78



adituen esanetan

# Menopausia

**E**makumearen obarioek funtzionatzeari lagatzen diotenean, menopausiaz ari gara. Euskal Autonomi Erkidegoan, menopausia agertzeko batez besteko adina 48 urtekoa da. Adin horretatik aurrera emakumeak sortzen duen hormonakopurua gutxitu egiten da, eta menopausiaren sintomak agertzen dira. Bestalde, esan behar da menopausia modu naturalean ager daitekeela, eta, era berean, probokatutako menopausien-kasuak ere badirela (obarioen ebakuntza gertatzen denean edo

radioterapia aplikatu behar den kasuetan, esaterako). Dena den, nahiz eta menopausia prozesu natural bat izan, bere agerpena atzeratzeko metodoak daude. Argi izan behar da menopausia ez dela gaixotasun bat, prozesu fisiologiko guztiz normala baizik. Kontuak kontu, menopausia-garaia oso sasoi berezia da emakumearen bizitzan.

Menopausiari aurre egiteko hiru aspektu izan behar ditugu kontuan: alde batetik, dieta (orekatua izan behar du,



JOSE RAMON SERRANO

Ginekologoa

*"Argi izan behar da menopausia ez dela gaixotasuna, prozesu fisiologiko guztiz normala baizik. Emakumearen etapa oso berezia da"*

kaltzioari lehentasuna emanaz); bestetik, ariketa fisikoa (pasiatzea eta igeriketa egitea oso ondo datorkie menopausia duten emakumei), eta, azkenik, tratamendu hormonalak. Bizimodu osasuntsua izateak berebiziko garrantzia dauka. Ariketa fisikoarekin, pasiatzean, hezurretan kaltzioa berreskuratuko dugu eta igeriketa oso gomendagarria da artikulazioendako.

Sintomei dagokienez, lau motako sintomak bereizten dira: neurobegetatiboak (sofokoak, izerdia...), urogenitalak (lehortzea eta, horren ondorioz, koitoa praktikatzeko mina), osteoporosia eta, azkenik, bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua handitzen da menopausiaren agerpenarekin batera. Badira osteoporosiaren gainean bakarrik eragiten duten tratamenduak eta baita gainerako sintomei aurre egiteko aproposak diren beste tratamendu batzuk ere. Gaur egun erabiltzen den tratamendua 5-10 urte bitartean egitea gomendatzen da.



Euskal Autonomi Erkidegoan, menopausia agertzeko batz besteko adina 48 urtekoa da. ARTXIBOA

bergarako errota



## SAN ANTONIO

**L**entsu ofizialak dakarrenez (1890ekoak), garai hartan errota-etxe honetan bizi ziren, besteak beste, ondorengo bizilagunak: Jose Azkarate Muxika, 64 urtekoa eta Lorentzo Azkarate Argarate, 28 urtekoa, okina. Biek zekiten irakurtzen eta idazten.

1895ean Azkarateren alarguna ageri da errotari moduan.

1927an Lorentzo Azkaratek irina ehotzeko errota gisa eman zion alta industrian eta 1939tik aurrera okindegi izatearren ordaindu beharreko kuota ordaindu izan zuen. Nikolas Azkarate Jauregi izan zen azken titularra.

Azken errotaria Nikolas Azkarate izan zen eta bera 1965ean hil zen, 66 urte zituela.

1940an utzi zion lan egiteari errota-okindegi honek eta 1942an bota zuten.

Deba errekaaren eskumako aldean zegoen eta bertako urak erabiltzen zituen. Bi harri pare zituen.

**KOKALEKUA:** San Antonio Paduakoaren ermitaren aurre-aurrean, une honetan plazoleta bat dagoen tokian, Antzuola, Zumarraga eta Bergarako errepedeen bidegurutzean.

Antxon Agirre Sorondo




## Araban bagare, Nafarroan bagara

Eguraldiak, poliki-poliki bada ere, onera egin du, eta **AEK-ko ikasleek** ez dute ikasgelatik ateratzeko aukerarik galtzen. Aurreko batean, sagardotegira joan ziren, eta oraingoan, **Araba eta Nafarroan zehar** ibili zaizkigu hamabosteko taldea. Apirilaren 9an egin zuten txangotxo hau. Lehenik, Araban zehar ibili ziren. Argazia, esaterako, **Durruman** ateratakoa da, ikasleetako baten jaioterrian hain zuzen ere. Nafarroari dagokionez, **Lizarra, Bakedano eta Urederra** bezalako ingurune politak ikusi zituzten. Iluntze aldera, Bergarara bueltatu ziren joan baino nekatuago, baina baita alaiago ere.

## Aritzeta arrakastatsu Andaluzian

**A**rrakasta handia izan du Aritzeta abesbatzak **Kordoban eta Sevillan Aste Santuan** emandako kontzertuetan. Kordobari dagokionez, **Espartinas eta Montilla** herrietan eskaini zituzten emanaldiak, eta bien bitartean, herri bakoitzeko agintariek lagunduta, hainbat bisita gidatu egiteko aukera ere izan zuten.

Bestalde, Sevillan bi emanaldi eskaini zituzten **Cristo del Gran Poder** elizan: bata, meza bitartean, eta bestea, meza ostean. Bigarren emanaldi bonetara, gainera, inguruan oporrak igarotzen ari ziren hainbat bergarar burbildu ziren.



## Mende hasierara itzulera

**Antzinako autoak** ikusteko aukera izan genuen joan zen domekan herriko plazan. Kotxe hauek, **Euskal Herriko IV. Itzulian** parte hartzen ari ziren, eta ibilbidearen barnean, Bergaran ere geldialditxo egin zuten. Orotara, 40 ziren, guztiak **1940. urte aurrekoak**. 12:30ak aldera iritsi ziren San Martin plazara, eta gidariek bazkaldu bitartean egon ziren bertan ikusgai. Partehartzaileen artean, **Agustín Lazpiur** bergararra izan zen. Argazkian ikus daitekeen bezala, kotxeak dotoreak ziren benetan: Rolls Royce, Buick eta Aston Martin etxeetakoak besteak beste.



# Erleak lorez lore

## Udaberrian hasten dira erlauntzatik kanpo lanean

**Eguraldiak hobera egiten duen momentutik gero eta animaliatxo gehiago ikusten ditugu gure parajeetan, intsektuak batik bat, eta intsektuen artean, erleak. Udaberriarekin batera ekiten diote animalia txiki hauek kanpoko lanari; lorez lore nektarra eta polena batu eta erlauntzetarako bidea hartzen dute. Euskal Herrian erlezain eta erlezale ugari dago, eta baita Bergaran ere. Gu horietako hirurekin egon gara, eta erleen mundua hobeto ezagutzeko aukera eskaini digute.**

**E**ztia egiten dutela eta deskuidatuz gero, ziztadaren bat ere jaso dezakegula: horretara mugatzen da gehienok erleei buruz dakiguna. Baina erlea hori baino askoz gehiago da. Guk uste dugun baino garrantzitsuagoa da erlea naturarentzat eta gu guztiontzat. Askotan esan izan da erlea naturaren euskarri dela eta ez dugula behar adina baloratzen. Hori dela eta, animalia ezezagun hori ezagutu nahi izan dugu, eta horretarako, Bergarako hainbat erlezainekin berba egin dugu.

Pablo Uribesalgok gaztetatik dauka erleekiko afizioa. Aita erlezaina zuen, eta berarengandik ikasi zuen gaur dakien gehientsuena. Goiko auzoko San Joxepe baserrian bizi da, eta bertan dauzka bere hiru erlauntzak.

Martin Garmendiak, berriz, Aitor Garitano bere adiskidearekin batera, Galartza auzoan eta Itsasmendin (Garitanoren baserrian) dauzka erlauntzak iaiztik. Betidanik erakarri izan du erleen munduak, eta erleen inguruan gehiago ikasteko asmoz, ikastaro bat baino gehiago ere egin du.

Jose Ramon Alberdik, azkenik, Miera bere baserrian laupabost erlauntz dauzka. Duela 16 urte jarri zuen bere lehendabiziko "erlea", eta gaur egun erlezain aditua dugu Jose Ramon.

### ERLAUNTZA: ANTOLATUTAKO GIZARTE BAT

Erlezain hauek guztiek azaldu diguten bezala, erlauntz bakoitza familia bat edo gizarte bat da, gizarte jerarkizatu bat. Bertan, hiru erle mota bizi dira: erregina, erlamandoak eta erle langileak. Erlauntz bakoitzak 80.000 erle inguru izan ditzake udaberrian; neguan, al-diz, 20.000ra jaisten da erle kopurua. Erlauntz bakoitzak hamar bat panel izaten ditu, eta bertako argizarizko zeldatxoetan egiten dute ezta. Esan bezala, erlauntza guztiz jerarkizatuta dagoen gizarte bat dela esan daiteke. Harrigarria da nola antolatzen duten beren "gizartea". Erle bat, gainera, ezin da bizi antolatutako erlauntz batean ez bada,

elkarren beharra daukate eta. Bakoi-tzak bere zeregina dauka, eta guztiak dira beharrezkoak erlauntz batek iraun dezan.

### ERREGINA, ERLAMANDOAK ETA LANGILEAK

Erlauntz bakoitzean erregina bakarra egoten da. Bere zeregina arrautzak jartzea izaten da, eta egunean 2.000 inguru jarri ditzake. Erregina izango den erle eme baten arrautza eta larba, beste erle eme guztienak bezalakoxea izaten da. Baina "beste guztiek erregin jelea lehendabiziko sei egunetan bakarrik jaten duten bitartean, erreginari bere bizi guztian ematen diote langileek; bitxia da, ahora ematen baitiote jaten" azaldu digu Pablok. Martin Garmendiak esan digunez, "tamainaz ere handiagoa da erregina, eta erlauntzean dagoen erle emankor bakarra izaten da, feromona izeneko sustantzia bat isurtzen baitu, beste erle guztiak antzutuz".



Ezkerretik eskumara, Pablo Uribesalgo, Martin Garmendia eta Jose Ramon Alberdi, beraien erlauntza inguruan.





Erle langile batek egunean 5 milioi lore bisita ditzake nektarra eta polena batu eta erlauntzara eramateko.

Erlamandoek, hau da, erle arrek, berriz, erregina ernaltzea beste zereginik ez daukate, eta horren ondoren hil egiten dira. Bien bitartean, erlamandoek, jan eta lo, besterik ez dute egiten. Horregatik hartzen dute gazteleraz "zangano" izena.

Erlauntzeko populazioaren gehiena, baina, erle langileek osatzen dute. Udaberri aldera, 80.000 erle inguru izan ditzake erlauntz batek: erregina bakarra, 200 erlamando inguru eta gainerako guztiak langileak. Erregina laupabost urtez bizi daitekeen bitartean, lan-

gileek bizpahiru hilabeteko bizia izan ohi dute. Jaiotzen diren momentutik hasten dira lan eta lan, lehendabizi etxe barrua garbitzen, atontzen, atezain lanetan, argizaria sortu eta eraikuntza lanetan. Hogeitabat egun dutenetik aurrera, berriz, kanpora ateratzen hasten di-

## Erleei buruzko hainbat bitxikeria

- Egun hauetan egiten duen eguraldiarekin, erle bakoitzak egunean bost milioi lore inguru bisita ditzake.
- Erlauntz barrua berotu egiten denean, erle langileek hegalei eraginez kontrolatzen dute temperatura.
- Loreetan batutako nektarra ezti bilakatzeko honen ur proportzioa jaitsi behar izaten da, eta horretarako ere hegalei mugimenduaz baliatzen dira.
- Erleek 30 kilometro orduko abiadura egiten dute hegatan.
- Erregina batek milioi eta erdi arrautza jar ditzake bere bizitzan zehar (egunean 2.000).
- Argizaria berez sortzen zaie erleei, sabel azpian dituzten guruin batzuetan. Baita erregin jelea ere, azken hau buruan dituzten guruin batzuetan sortzen zaie.
- Erlauntz bereko erleek besteetatik bereizten dituen usain berezi bat izaten dute.
- Barroa izeneko parasito batek larbak izorratzen ditu, eta ondo formatu gabe jaiotzen dira erleak. Hori dela eta, erlauntz asko galdu dituzte erlezainek azken urteotan.
- Polena bere gorputzean itsastan zaio erleari, eta horrela garraiatzen du erlauntzeraino.
- Erleek badute beraien hizkuntza propioa. Adibidez, erle batek lore sail bat aurkitzen duenean, dantza batzuen bitartez ohartarazten ditu gainerako erleak, eta egiten dituen mugimenduekin, loreak ze distantziatarara dauden eta ze kalitatetakoak diren adierazten du.

ra, nektarra, polena, propolioa e.a. batzera. Horretarako, erlauntzetik bizpahiru kilometrora mugitzen da erlea.

### UDABERRIAN LOREZ LORE

Udaberria gure inguruko parajeak lorez janzen diren garaia da, eta udaberriarekin batera hasten dira erleak lorez lore lanean. Alde batetik, nektarra batzen dute, erlauntzera eraman eta ezitia egiteko. Bestalde, loreen polena batzen dute, beraien elikagai garrantzitsuenarikoa dena. Lehendabizi fruta arbole-tako lorak ernetzen dira; gero, alkazia, eta ondoren, txilarra. Horiek izaten dira erleen lorerik gogokoenak.

Erleek produktu ugari emateaz gain (eztia, polena, argizaria...), polinizazioaren %80a ere euren zor diegu. Eta honek berebiziko garrantzia dauka naturan. Polena landare baten alderdi arra da, eta erleak batetik bestera ibiltzen direnez, landareen ernaltze lan inportantea egiten dute erleek.

### UZTA GARAIA

Euskal Herriko erlezainen artean gehientsuenak zaleak besterik ez dira, ez dira horretatik bizi, hobby gisa hartzen dute erlezaintza. Baina badira hortik bizi direnak ere, eta, ahalik eta loraldi gehienak aprobetxatu




Erlezaintzarako tresneria berezia behar da. Argazkian, auspoa, gantxoak, eskobila eta espatula.

nahian, ekain inguruan Burgos aldera eramaten dituzte erlauntzak, hango loraldiak ere aprobetxatzeko. Baina, esan bezala, hauek gutxienak dira. Uribesalgo, Alberdi eta Garmendia bergararrak afizionatuak direnez, Bergaran bakarrik edukitzen dituzte "erleak", eta irail inguruan ateratzen dizkiete ezitia eta gainerako produktuak. Hala ere, Alberdik esan digunez, "lante-

giko lagunei eta gertuko jendeari saltzen diet zeozer, baina oso gutxi".


Erlauntzetatik ezitia ateratzea ez da lan erraza, eta arrisksua ere izan daiteke neurri egokiak hartzen ez badira. Horrela, beharrezko tresneria edukitzea ezinbestekoa da. Alde batetik, arropa egokia jantzi behar izaten dute erlezainek, erlauntza irekitzera doazenean, ziztadetatik babesteko. Bestalde, auspoa erabiltzen dute, kearekin beldurtu egiten baitira erleak, eta ez dira erlauntzetik mugitzen. Gantxoekin, berriz, panelak ateratzen dituzte; gero, eskobila erabiliz, bertan dauden erle guztiak kentzen dituzte.<




## Erleek ematen digutena

- Ezitia: duda barik, erlearen produkturik ezagunena. Erleek beraien kontsumorako ekoizten dute ezitia, udaberri-udan ekoiztu eta negu osoan zehar bizirauteko adina ekoizten dute. Loreetatik hartutako nektarrarekin egiten dute ezitia, nektar horrek daukan ura kenduz. Ezti mota ugari dago, nektarra hartzen duten lore motaren arabera.
- Polena: polena ere loreetatik hartzen dute erleek. Landareen edo loreen zati arra dela esan daiteke. Erleek ile antzeko itsaskor batzuk dituzte bizkarrean, eta bertan itsasten zaie loreen polena. Polena ere, ezitia bezalaxe, beraiek elikatzeko izaten da.

- Argizaria: argizaria, berriz, ez dute loreetatik ateratzen, beraiei berez sortzen zaien substantzia bat da eta. Sabel azpian dauzkaten guruin batzuetan sortzen da, eta erlauntza bera eraikitzeke erabiltzen dute. Guk, berriz, jakina den bezala, kandelak eta ukenduak egiteko, altzarigintzan, garbikariak ekoizteko...
- Erregina jelea: hau ere, guruin batzuetan sortzen zaie, buruan dituzten guruinetan, hain zuzen ere. Erregina bizi guztian elikatzen da jeleaz, eta baita erlekumak ere.
- Propolioa: baltsamo, olio, argizari eta polenez osatua dago, eta erlauntzaren egituraren erabiltzen dute. Guk, berriz, ukenduak egiteko batik bat, azala zaintzeko oso egokia da eta.
- Pozoia: pozoia ere erleen guruinetan sortzen da. Erlearen ziztadak denerako erreakzioak sor ditzake, pertsona bakoitzaren arabera. Hala ere, era berean, sendagarri bezala ere erabiltzen da erlearen pozoia, erreumaren aurka batez ere.



# ARANZADI IKASTOLA



## Batxilergorako aurrematrikulazio epea zabalik

**Maiatzaren 2tik 12ra arte**

Goizez: 8:30-13:00 Arratsaldez: 15:00-18:00

### Batxilergo modalitateak:

Osasun eta natur zientziak

Gizarte eta giza zientziak

*Edozein unibertsitate-ikasketa  
edo goi mailako ziklo formatibo  
egiteko prestakuntza*



San Martin Plaza 4

Tf: 943 76 90 71

Faxa: 943 76 91 77




PARTAIDE  
Ikastolak

## Lizarralde-Gomez bigarren Euskal Herriko goitibehera txapelketan

**Iñigo Lizarralde bergararrak (24 urte) eta Mikel Gomez atxabaltarrak (22) osatutako bikotea bigarren sailkatu zen, apirilaren 24an Hazparnen jokaturako Euskal Herriko goitibehera txapelketaren lehenbiziko proban.**

Lapurdin jokaturako proban 17 bikote izan ziren lehian eta Gomezek eta Lizarralde hiru minutu eta bigarren bat egin zuten beren saiorik hoberenean. Bilotta eta Laguna irabazleek (iazko txapeldunak), berriz, 2:59ko denbora egin zuten. Hazparneko zirkuitua 2.350 metroko luzerakoa zen. Bestalde, Andoni Olabarria bergararra Jose Antonio Flores hernaniarrarekin batera parte hartzen ari da. Hazparneko proban ez zuten zorte handirik izan, eta azken aurreko tokian sailkatu ziren, 3:07ko denborarekin.

Euskal Herriko txapelketaren zirkuitua hiru probaz osaturik dago; hurrengo proba, maiatzaren 27an, Urnietan izango da, eta azkena, Angiozarren, datorren irailaren 16an. Txapelketa-



Iñigo Lizarralde (ezkerrean) eta Mikel Gomezek hasiera ezinhobea izan dute Euskal Herriko goitibehera zirkuituan.

ko probaz gain, udaberri-uda partean ia astero goitibehera lasterketak jokaten dira Euskal Herrian zehar. Joan zen astelehenean, hilak 1, Andoainen, hirugarren postua eskuratu zuten Gomezek eta Lizarralde.

Iñigok eta Mikelek elkarrekin lan egiten dute Ikerlanen eta beste bi lankideten laguntzaz, lasterketetan erabiltzen duten goitibehera egin zuten. Goitibehera egitea, lan orduz gain,

100.000 pezeta kostatu zaie. Nobedade gisa, hiru erroberetan suspentsioa dauka, eta emaitzak primerakoak izan dira orain arte. Itxaropentsu azaltzen dira Euskal Herriko txapelketari begira: "irabazteko asmoa daukagu".

Lasterketetan Iñigo aurrean joaten da, eserita eta ondo lotuta (arnesekin eta gerrikoarekin). Mikel, berriz, atzean joaten da, berak esaten duen moduan, "kabitzen naizen moduan". Goiti-

beherak 100 kilometro orduko abiadura har dezake. Garai bateko errodamenduak alde batera lagata, gaur egun gomazko erroberak, kotxeenak modukoak dituzte. Mikelek eta Iñigok Arrasaten, Olandixon, entrenatzen dute, "trafikorik ez dagoenean, jakina". Goitibehera lasterketek jende asko erakartzen dutela diote, eta bere jarraitzaile zintzoenak euren lagunak ei dira.



## Piraguismoa zapatuan Bideberrin

**Beti-Busti kirol elkarteak** antolatuta, bihar, zapatua, piraguismo probak jokatu dira Deba ibaian (Bideberri inguruko zatian), 16:30etik aurrera. Eskola kirolean dabilzan Gipuzkoako talde guztietako piraguitak (9-14 urte bitartekoak) izango dira bertan, slalom erara arituko direlarik. Ur-bizietan aritzeko hastapenak dira zapatuan ikusiko ditugun saio hauek. Bestalde, Eneko Iturrospe Beti-Bustiko kideak (argazkian) hirugarren postua lortu zuen domekan Granadan jokaturako Espainiako 8. sariko txapelketan.



Sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko, Bergarak beharrezkoa du bihar hiru puntuak eskuratzea.

## Bergarak Aurreraren aurka partidu erabakiorra zapatuan

**Liga amaitzeko** bi jardunaldi bakarrik falta direnean, Bergarak ezinbestekoa du garaipena lortzea, bihar, Ondarroako Aurreraren kontra, 17:00etan, Agorrosinen jokatuko den partiduan. Joan zen zapatuan, Sestaon, San Pedoren aurka husna berdindu ondoren, bergararak sailkapeneko 16. tokian daude, 40 punturekin. Beraien atzetik, San Pedro (40 puntu), Elgoibar (37), Santurtzi (36) eta Tolosa (29) daude bakarrik. Sailkapeneko azken hirurak jaitsiko dira, eta 17. tokian sailkatzen denak ere kategoria galtzeko arriskua izan dezake, 2.B mailako

euskal taldeen jaitsieraren eta 3. mailako igoeren araberak.

Biainen mutilek sailkapenaren erdialdean dauden bi talderen aurka jokatu behar harko dituzte azken bi partiduak, datorren astekoa Durangon. Hala ere, Jesus Mari Biain entrenatzaileak ez du inolako konfiantzarik nahi: "gauzak oso berdindurik daude, eta azken jardunaldira arte ez da ezer erabakiko. Aurrerari irabaziz gero, 43 punturekin jarriko ginateke, eta beraiek 45 puntu dituzte orain. Beraz, azken jardunaldia jokatu eta gero, hainbat talderen artean berdinketa egon daiteke, eta

gol-averageak zeresana izan dezake. Guk badakigu bi partiduak irabaztera joan behar garela". Jarraitzaileen laguntzak berebiziko garrantzia izango du bihar. Biainen hitzetan, "denboraldi hasieran askok ez zuten uste Liga amaieran mailari eusteko borrokan egongo ginenik ere, baina taldeak bere maila erakutsi du, eta orain, denboraldi osoko lana borobiltzea falta zaigu. Ea jendeari poztasun bat ematen diogun zapatuan". Biharko partiduari begira, baja bakarra Luis Mari Blancorena izan daiteke, defentsa eibartarra ez baita entrenatu astean zehar.

### Orgazek eta Herranek galdu

**Deba Arroko** finalean Joseba Orgazek eta Joseba Herranek galdu egin zuten Elizburu eta Jauregi soraluzetarren kontra, 22 eta 7ko emaitzarekin, astelehenean Oñatiko pilotalekuan jokatutako partiduan.

### Aitor Zabaleta garaile Iturretan

**Aitor Zabaleta** pilotak irabazi egin zuen domekan Iturretan jokatutako kotxe igoeran. Lehendabiziko hiru probak jokatu ostean, Euskal Herriko mendi igoeren txapelketako liderra dugu Zabaleta.

### Ander Muguruza pilotaria Elgetan

**Ander Muguruza**k, 23 urtez azpikoentzako Elgetako lau terdiko txapelketaren barruan, bigarren kanporaketa jokatuko du gaur, eguakitzan. Gaurko pilota jaialdia gaueko 21:15ean hasiko da.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Bergara-Ostadar

Lehen mailako kadeteak  
Zapatua. 12:00. Ipintza

#### Bergara-Aurrera Ondarroa

Hirugarren maila  
Zapatua. 17:00. Agorrosin

#### Bergara-Mundarro

Lehen mailako jubenilak  
Zapatua. 18:45. Ipintza

### ARETO FUTBOLA

#### Bergara-Lasarte

Gaur, eguakitzan. 22:30.  
Kiroldegia

#### Bergara-Azpeitia

Zapatua. 12:30. Kiroldegia

### ESKUBALOIA

#### Bergara-Arrate

Kadete mutilak  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

#### Bergara-Loiola

Senior mutilak  
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

#### Bergara-Arrate Amaña

Kadete neskek  
Domeka. 11:00. Kiroldegia

#### Bergara-Arrate

Jubenil mutilak  
Domeka. 12:15. Kiroldegia

### PILOTA

BERGARA HIRIA TXAPELKETA

#### Balestena-Uarte

/Erauizkin II.a-Garcia  
(promesak)

#### Eguzkitza-Erauizkin II.a

/Castellanos-Navarro

(lehen maila)

Martitzenean, 19:30ean

Udal Pilotalekuan

PROFESIONALAK

#### Agirre-Barriola

(eskuz banaka)

#### Barberito VI.a-Errasti

/Tirapu-Errandonea

#### Gorostiza-Taberna

/Beloki Ila.-Nalda III.a

Bihar, zapatua, 17:00etan

Udal Pilotalekuan



# Labegaraietako futbito txapelketa



## Liga eta kopa txapelketak pil-pilean

Bildurbarek Opel Lam taldeak bi partidu irabazi zituen astebukaeran, A Ze Flaxaren aurkakoa eta Ortziren kontrakoa, eta dagoeneko Kopa txapelketako finalerdietan ditugu. Ortz taldeak (artxiboko argazkian) liga txapelketa bikaina burutu arren, A Ze Flaxarekin batera, liga eta kopa txapelketatik kanpo geratu da. Astebukera honetan ere partidu interesgarriak izango ditugu. Alde batetik, zapatuan, liga txapelketako finalerdiak izango ditugu. Kopan gertatu bezala, Shaktale eta Mongatxurrak aurrez aurre izango dira eta ziurrenik Shaktalek mendekua hartu nahi izango die Mongatxurrakekoei, kopako partiduan Mongatxurrak taldea nagusitu baitzen. Bayer eta Errotagain taldeen arteko neurketa ere ez da txantxetakoia izango. Domekan, berriz, Kopako txapelketako kanporaketak jokatuko dira. Artusamak eta Bildurbarek taldeen arteko partidutik lehen finalista aterako da eta beste bi partiduetako irabazleek elkarren aurka jokatuko beharko dute finalera nor iristen den erabakitzeko.

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00. Artusamak-Bildurbarek ..... Antolaketa  
19:00. Bayer-Errotagain ..... Shaktale  
20:00. Shaktale-Mongatxurrak ..... Errotagain

### DOMEKAN BARRUAN


18:00. Uve Bikoitza-Errotagain ..... Mongatxurrak  
19:00. Mongatxurrak-Guadalest ..... Uve Bikoitza

OHARRA: Errotagain taldeko Aitor Anton jokalariai partidu bateko zigorra bete beharko du kopa txapelketan eta, beraz, ezin izango du domekan Uve Bikoitza taldearen kontrako kopako partidua jokatuz. Bestalde, antolaketa batzordeak jakitera eman duenez, aurtengo txapelketa maiatzaren 27 eta 28ko astebukaeran amaitu beharko da. Azkenaldian hainbat partidu bertan behera geratu dira eta antolaketa taldeei txapelketa noiz bukatuko den kontuan hartzeko eskaera nahi die.

## EMAITZAK

Bildurbarek Opel Lam-A Ze Flaxa ..... 6-4  
Artusamak-Fac ..... 7-1  
Bildurbarek Opel Lam-Ortzi ..... 3-2

Informazio hau babesle hauei esker:



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



**BOKATEGIA**  
Simon Arrieta plaza  
2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

## talde federatuen emaitzak

### FUTBOLA

San Pedro 0;  
Bergara 0  
Hirugarren maila

### SASKIBALOIA

Bergara 65;  
Gernika 75  
Senior mutilak

### ESKUBALOIA

Aloña 14; Bergara 18  
Kadete mutilak  
Bergara 18;  
Elgoibar 15  
Kadete mutilak

### Urola 1; Bergara 23

Jubenil neskak  
Aloña 26; Bergara 24  
Jubenil mutilak

## mahoneroak



**GORKA DUEÑAS**  
BKEko jokalaria

Oso partidu txarra izan zen zapatuan, San Pedroren aurka, Sestaon jokatutakoa. Irabazteko asmoarekin zelairatu ginen eta lehenengo zatian txukun samar aritu ginen, hainbat gol aukera izan genuen eta. Hala ere, joko gehiena goitik izan zen, eta bi taldeok ere nahikoa irudi eskasa azaldu genuen. Bigarren zatian, San Pedrok aurrera egin zuen gol aukerak sortuz, baina Markel gure atezainak geldiketa bikainak egin zituen.

Gauzak ez zitzaizkigun nahi bezala atera, eta berdinketarekin konformatu behar izan ginen azkenean. Emaitza ez zen batere ona ez guretzat eta ez eurontzat. Orain, azken bi partiduetan, mailari eusteko azken esfortzua egin beharko dugu. Nik uste, zapatuan irabaztearekin nahikoa izango dela. Ondarroako Aurrerak ekipo ona dauka, baina han jokatutako partiduan nagusi izan ginen, nahiz eta berdinketa besterik ez eskuratu. Zapatuan geure joko egitera ateratzen bagara, hiru puntuak etxean geratuko direla uste dut.

**Otsein Saria**

Sailkapen orokorra:  
Jokin Mendaratz ..... 12 puntu  
Oxel Apraiz ..... 12 puntu  
Josetxo Lizarralde ..... 10 puntu  
Asier Rodriguez ..... 9 puntu  
Gorka Dueñas ..... 9 puntu  
Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

**kronika** senior mutilen saskibaloia taldea

## Ezin mailari eutsi

**BERGARA 65**

**GERNIKA 75**

**Bergara:** Iban Herzog (13 puntu), Mikel Etxeberria (8), Jesus Morais (8), Gorka Eraña (7), Igor Urisabel –hasierako boskotea–, David Urbina (2), Gorka Unzueta (2), Ugutz Basauri (2), Mikel Artola (11) eta Aniotz Gabilondo (5).



Senior taldeak ezin izan dio kategoriari eutsi eta liga probintzian arituko da hurrengo denboraldian.

Gernikaren kontra galdu ondoren, kategoria mantentzeko zituen aukerak agortu zituen Bergarak zapatuan. Fernando Moreton eta Alex Familiarren taldea eskas aritu da denboraldiko azken partean eta, ondorioz, lehen maila probintzialera jaitsi da liga amaitzeko partidu bakar bat falta denean. Zapatuan bergarrek hasiera

ezinhobea eman zioten partiduari eta 11-0eko emaitzarekin aurreratu ziren markagailuan. Gernikak uste baino erraztasun gehiago eman zituen hasierako minutuetan eta etxekoek etekina atera zioten bizkaitarren defentsa ahulari, kontraeraso-

an saskiratze errezak eginenez. Hala ere, jokoa ez zen oso ikusgarria izan. Bi taldeak sailkapeneko azken postuetan dira eta zapatuan horren zergatia erakutsi zuten Labagaraletan bildutako ikusleen aurrean. Atsedena baina lehen Gerni-

kak aldea murriztea lortu zuen etxekoek hutsak aprobetxatuz, eta amaieran mahoneroek bost puntuko aldea besterik ez zuten lortu (34-29). Partiduaren hasiera bikaina egin ondoren, kontzentrazioa eta indarra galdu zuten etxeko jokalariek.

Bigarren zatian, Gernikak Bergara baino hobeto jokatu zuen eta piskanaka-piskanaka kantxan nagusitzen hasi zen. Bizkaitarren entrenatzaileak zonan defenditzea agindu zien bere jokalariei eta bergarrek ezin izan zioten aurre egin bisitarien planteamenduari. Gernikakoen presioa itogarria gertatu zitzaion Familiar eta Moretonen mutilei. Markagailuan aurretik jarri ondoren, Gernikak bere abantailari eutsi zion eta merezimendu osoz eskuratu zuen garaipena.

Azkenean, etsipena, azken sei denboraldiak lehen maila autonomikoan eman eta gero, jaitsiera gauzatu delako. Astebukaeran tramitezko partidua izango dute Gasteizen, ligari bukaera emanez. Laister hurrengo denboraldia gertatzen hasiteko ordua iritsiko da.

### PEDRO JAUSORO / BKEko entrenatzailea

## “Jokalarien jarrerak lehentasuna dauka”

**Pedro Jausorok 16 urte daramatza B.K.E.n. Gaztetan atezain postuan jokatu zuen, eta orain ohorezko kadeteak eta 2. mailako jubenil taldeetan entrenatzaile laguntzailea dugu. Futbol profesionala baino, azpiko kategorietakoa atsegin du.**

**G.** Noiztik Bergarako futbol taldeetan?

**E.** 26 urte nituela hasi nintzen. Orditik, Jose Luis Beitia, Jesus Mari Larrañaga, Fernando Juaristi, Julian Ugalde, Jose Mari Aranburu eta Fernando Oregirekin batera aritu naiz lanean. Askok gustatzen zait harrobiko taldeekin ibiltzea, gaztetxoekin entrenatzea eskerronekoa da.

**G.** Zela ikusten duzu Bergarako harrobia?

**E.** Orokorrean, oso ondo. Jubentzetan maila oneko bi talde daude; ohorezko kadetea ere oso ondo dabil; lehen mailako kadetea nahi baino makalago, eta infantiletan, beharbada, igoera fasea jokatzeak aukera zegoen. Bestalde, nesken taldea ere primeran ikusten dut.

**G.** Zer da azpiko kategorietan gehien landu beharrekoa?

**E.** Jokalarien jarrera, inork

taldean ezinbestekoa dela pentsa ez dezan. Dena den, gaur egun lehen baino aukera gehiago daukate jokatzeak, entrenatzaileek jokalarien rotazioak egiten dituztelako. Hori ondo ikusten dut.

**G.** Lehen mailako gustuko entrenatzaile bat?

**E.** Victor Fernandez, joko ikusgarria eskaintzen duelako.

**G.** Clemente, bai ala ez?

**E.** Niri ez zait gustatzen, defentsiboa delako, baina badirudi Realean jarraituko duela.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Koldo Eleizalde.  
943 76 50 86 (gauzez).

Iraburu kalea (Bolu).  
943 76 08 47 (gauzez).

Bolun pisu berria,  
sukalde osoarekin.  
Garajea igogailuarekin.  
629 324 553.

Bidekurutzeta.  
619 133 836.

Apartamentua Zubietan.  
Erabat berriztua, 50 m<sup>2</sup>.  
670 901 310.

**EROSI**

Bergaran etxea erosiko  
genuke. 943 21 99 02.

Etxea erosiko nuke alde  
zaharrear. 943 76 38 25.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bungalow bat Torrevie-  
jan, udan. Hondartzatik  
gertu. 943 78 14 72.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua hartuko nuke  
alokairuan.  
943 78 04 70 / 11 01.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

1. ETXEBIZITZAK  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

2. GARAJEAK  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

3. LOKALAK  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

4. LANA  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

7. ANIMALIAK  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

8. DENETARIK  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

9. HARREMANAK  
Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Lokala alokairuan Mar-  
tokon. 943 76 11 13.

**4. LANA**

**ESKAINTZAK**

Mutilla edozertan lan  
egiteko gertu.  
600 600 531.

Neska edozertan lan  
egiteko gertu.  
646 611 383.

Mutilla edozertan lan  
egiteko gertu.  
616 664 851.

Dendako lanetan  
esperientzia duen  
emakumezkoa lanerako  
gertu. 943 76 07 69.

**ETXE KONPARTITUAK**

Etxea konpartituko nuke.  
627 046 374 (Diego).

Logela hartuko nuke  
alokairuan, sukaldetako  
eskubidearekin.  
943 76 46 64, goizez  
(Marilo).

Pisua konpartituko nuke.  
667 52 48 98 (Andres).

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Bolu. 2 plaza.

Deitu 616 049 865  
telefonora.

Antzuolan, Zurrategin.  
943 76 64 00.

Antzuola, Kalegoi.  
Deitu 943 76 47 16  
telefonora.

Masterreka.  
696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolu.  
943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA.  
943 76 72 17.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan  
Boni Laskurainen.  
Deitu 943 76 47 67  
telefonora.

Garajea alokairuan  
Zubiaurren.  
943 76 23 53.

Garajea alokairuan  
Santa Marinar.  
943 76 41 88.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Zubiaurren garajea har-  
tuko nuke. 943 76 08 26.

**3. LOKALAK**

**EROSI**

Lokal komertziala erosi  
nahi nuke S. Lorentzon.  
300 m<sup>2</sup>. 607 82 53 06.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bolun (100 m<sup>2</sup>) eta  
Arruriagan (18m<sup>2</sup>)  
lokala alokairuan.  
Deitu 606 96 23 80  
telefonora.

Mugertzako gainean  
35 m<sup>2</sup>ko lokala alokai-  
ruan. 943 76 21 49.

Eskailera eta garajeak  
garbitzen esperientzia  
duen pertsona lanerako  
gertu. 943 76 35 38  
(Antonio).

Mutil gaztea lanerako  
gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile  
edo beste edozertan  
jarduteko gertu.  
646 820 371.

Apunteak, lanak eta  
era guztietako doku-  
mentuak ordenadorez.  
646 095 338.

Etxeko lanak, umeak

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

**San Pankrazio**  
egunean,  
maiatzak 12

deskontua  
**lentzerian % 20**

usaindegia, mertzeria  
*Gracian*

Bidekurutzeta 6  
Tf: 943 76 10 25

**DEBA GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefona Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37



zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

**ESKAERAK**

Etxeko lanetarako pertsona behar da. 943 76 11 41.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. 943 76 54 93 (gazez).

Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Irailetik aurrera. Deitu 943 76 08 08 telefonora.

Emakumea behar da abuztuan pertsona bati lagundu eta etxeko lanak egiteko (egun oso-rako). 943 76 22 39 (Miren).

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAITZAK**

9-13 urtekoei mate, ingeles e.a. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

**ESKAERAK**

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 78 09 66 telefonora.

Logseko 1. mailako fisika, kimika eta matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 10 44.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Renault Clio 16V. 93.000 km., egoera onean. 943 76 16 02.

Scooter Buxsy 49 cc. motorra. 4.500 km. Deitu 943 76 34 80 telefonora.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y). Deitu 943 76 37 84 telefonora.

Suzuki motorra. la berria. 130.000 PTA. Deitu 943 76 37 83 telefonora.

Ford Orion. 300.000 PTA. Egoera onean. Deitu 943 76 54 19 telefonora (Raul).

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Boxer eta alemaniar artzain arrazako txakurkumeak, pedigridunak. 696 057 346.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Bañareseko kanpinean modulo bat salgai. Ekipatua. Bista ederrak. 656 748 337.

Tronpeta berria. 943 76 62 05.

Mendiko bizikleta bi. Merke. 943 76 15 76.

Yashica 108 Multiprogram kamera. 943 76 08 27 (20:00-22:00).

Karro denda, Inesca Viena. la berria. 943 76 43 80.

Mendiko botak (43 zkia.) eta futboleko zapatillak (41 zkia.). 943 76 33 59.

Tronpeta berria, prezio onean. 943 78 70 52.

Aluminiozko 16"ko llanta berriak. 195/60 Vectra. 943 76 28 07.

Goiko kargadun Otsein garbigailua prezio onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000 litroko bat eta 1.800eko bi. 943 76 12 36.

Alpen Kreuzer karrodenda. 943 76 39 87.

16"ko llantak salgai, egoera onean eta merke. 943 76 54 19.

Bi oheko logela oso bat eta egongelako armarua salgai. Estreintatu gabe. 943 12 74 03.

Terrazarako 12 mahai eta plastikozko 50 aulki, prezio ona. 943 76 07 92.

Karro denda egoera onean. 943 78 70 74.


**GALDU**

Belarritakoa, Kiroldegi inguruan. 943 76 23 24.

**9. HARREMANAK**

**DEIAK**

Kuba edo Dominikar Errepublikara joan nahi dugun bi lagun gara. Gurekin etorri nahi baduzu, deitu lehenbailehen: 943 76 91 27 (Aitor).



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**IDAZKARIA**  
Araba. 31530/5

**HARAKINA**  
Errenderi. 31851/1

**ILEAPAINZAILA**  
Ibai ezkerrekoa. 32080/2

**INFORMATIKAKO LANBIDE HEZIKETA II**  
Bilbo. 32092/1  
Bilbo. 32095/1

**DELINANTE PROIEKTUGILEA**  
Ibai ezkerrekoa. 32096/3

**INFORMATIKAN LIZENTZIATUA**  
Bilbo. 32104/1

**DEKORATZAILA**  
Goierri. 32149/5

**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 28085/3

**INJINERU TEKNIKOA**  
Durangaldea. 31282/5

**DIESEL MOTOREEN TEKNIKARIA**  
Bilbo. 30372/2

**AUTOESKOLA IRAKASLEA**  
Arabar lautada. 30670/2

**TEKNIKARI KOMERTZIALA**  
Bilbo. 30750/5

**ILEAPAINZAILA**  
Bilbo. 30949/2

**ITURGINTZA IKASLEA**  
Urola. 31068/2

**IGELTSERITZA IKASLEA**  
Goierri. 31207/9

**TORNULARIAK, 2**  
Bergara. 31317/5

**GALDARAGILEA**  
Goierri. 31318/8

**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**  
Donostia. 31587/2

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udaltxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Lokal komertziala alokairuan Osintxun. 140 m<sup>2</sup>**

943 76 47 62

**TABERNARI lanetarako mutila behar da 943 76 15 84**

Debagoieneko komunikazio enpresa batek  
**ZUZENDARI KOMERTZIALA behar du**

Enpresaren diru sarreraren ardura osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eratuko den lantaldea zuzenduz eta beste arduradunekin elkarlanean.

**Eskatzen da:**

- Sormena eta antolaketa gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

**Eskaintzen da:**

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurikulumak eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:  
95 posta kutxatila • 20500 ARRASATE

**Dendaria behar da prentsa kioskoan lan egiteko**

Interesatuok etorri Bideberriko kioskora.

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

## Martzial Agirre eskultore bergararra hil zela ehun urte beteko dira eguaztenean


**Martzial Agirre eskultore bergararra hil zela 100 urte beteko dira eguaztenean, hilak 10. Juan Martzial Agirre eta Lazkano 1840. urteko azaroaren 22an jaio zen, eta hainbat eskultura famatu utzi ditu, Epaitegiko fatxadako "Justizia" esate baterako.**

Batxiler ikasketak Bergaran egin zituen eta aparteko dohaia erakutsi zuen marrazkirako eta baita eskulturarako berezko sena ere. Aita, Joakin Agirre, eskultorea zuen, eta berarengandik ikasi zuen eskultore ofizioa.

Izaeraz oso barnekoia zen eta printzipio erlijiosoak oso sustraituta zituen, Arantzazura joan zen ikastera. Honela, Gipuzkoatik Erromara urtero antolatzen ziren erromesaldietan parte hartzen hasi zen, eta bidaia horiek asko lagundu zioten, eskultore gisa hobetu beharrekoak zeintzuk ziren jakiteko. Erromara abiatu zen ikastera: marrazketaren eta eskultura-materialen portararen oinarri teknikoak ikastera, eta, batez ere, marmolari dagokion guztia. Eskaiolarekin egindako hustu-lanak ere interesatu zitzaizkion.

Togletti-ren artisau tailerrera eta Giuseppe Obici eskultorearen tailerrera joan zen Martzial Agirre ikastera. Bai Toglettik, bai Obicik, estilo neoklasikoa landu zuten, hori baitzen orduan nagusi.

Honekin guztiarekin, bilaketa irizpide izanik, plastika italiarraren metodoak ere jorratu zituen.



Martzial Agirre, Rosalesek pintatua.



Udalak, Martzial Agirrerri buruzko erakusketa antolatuko du irailaren 8tik 17ra arte: Aldunditik ekarritako eskulturaren bat, bere argazki eta marrazkiak eta Rosales, Martzialen lagun handi, eta pintore famatuaren bi erretratu egongo dira ikusgai besteak beste.

ARGAZKIAK: VASCOS EN ROMA LIBURUTIK

### LEHENENGO LANAK

Agirrerren lehenengo lana, tamaina naturalean egindako "Ehiztaria" izan zen. Madrileko Erakusketa Nazionalera bidali zuen 1864. urtean, eta hirugarren mailako domina jaso zuen. Ondoren, 1866.ean, "Pilotaria" etorri zen, naturalismo oso handia duen eskultura.

Tamaina naturalean egindako irudi horiekin ekin zion Agirrek kutsu naturalista etnografikoko eskulturaren bidari euskal artearen barruan.

Artista emankorra izan zen; eskultura ugari egin zituen. Horietako

batzuk oso ezagunak. 1870. urtean, Bergarako epaitegiko teiltuan dagoen "Justizia" egin zuen. Enkargua Bergarako Udaletik jaso zuen. Italiako harriz eginda dago, eta Bergarako Udalak ordaindu zuen. Urte berean, Erroman Baticanoko I. Kontzilioa egin zen, eta ospakizun berezi hori zela eta, bere lagun zen Luvensteingo printzeak, Pio IX.a aita santuaren irudi bat enkargatu zion. Irudi hori Erromako Erakusketan aurkeztu zuen, eta Urrezko Domina eman zion Aita Santuak.

Horiez gain, hainbat irudi famatu laga zituen Agirrek, "Napoleseko jokalaria", "Kalabriako bandidoak", edota Loiolako santutegiaren hiribidean dagoen San Inazioaren irudia esaterako.

**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

**INFERNUKUA  
TABERNA**


Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

**Gallastegi**

*Jostundegia*

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85



Donato Goienetxe perkusiojoleak eta Edurne Iturbek soinu-joleak kalejirak, fandangoak eta arin-arinak eskainiko dituzte bihar, zapatua, San Martin plazan.

## Trikitixa eta perkusioa zapatuan San Martin plazan

**Bikote berezia** izango dugu bihar, zapatua, 19:00etan San Martin plazan. Donato Goienetxe eta Edurne Iturbek osatutako bikoteak trikitixa, perkusio hainbat tresnaz lagundurik joko dute. Ohikoa, trikitixa laguntzen panderoa entzutea bada ere, Goienetxe eta Iturbek bikoteak panderoaz gain, dan-

bor afrikarra, xilomarinba, kriskitinak, kutxa flamenkoa eta beste tresna batzuk jo ohi dituzte. Perkusio tresna guztiak Donato Goienetxek joko ditu, eta trikitixa Edurne Iturbek.

Emanaldian, kalejirak, fandangoak, arin-arinak eta euskal folkloreko beste doinu batzuk eskainiko dituzte.

## Martxan da Jardunek Pentekoste jaietarako antolatzen duen pegatina lehiaketa

**Jardunek** urtero bezala, 1996. urteaz geroztik, Pentekoste jaietarako pegatina lehiaketa antolatu du. Taberna eta ikastetxeetan hainbat kutxa jarri dira, eta bertan utzi beharko du esaldia parte hartu nahi duenak. Aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a da. Esaldi aukeratuak 10.000 pezetako saria jasoko du.

**EIN BIOZUNIAN...  
ERABILIZU!**

**la ba JARDUNI!!**

Iaz, saria hutsik geratu zen, antolatuzaileek esandakoaren arabera, sexuarekin zerikusia duten zentzu bikoitzeko esaldiak direlako gehien heltzen zaizkienak eta bide hau agortuta dagoela gaineratu dute, orijinaltasuna galdu baitute.

Lehen lehiaketako pegatina, 1996koa.

### salduenak apirila

## LIBURUAK

### EUSKARAZ

1. Grimm anaien ipuinak  
Pamiela.
2. NIRE KULEROAK  
Angel Lertxundi. Elkar
3. MUSUBERO MON AMOUR  
Angel Lertxundi. Elkar
4. ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION  
Lourdes Oñederra. Erein
5. ARTAZIAK  
Joan Mari Torrealdai. Susa

### GAZTELANIAZ

1. LA CARTA ESFERICA  
Arturo Perez Reverte. Alfaguara
  2. AHORA HABLARE DE MI  
Antonio Gala. Planeta
  3. LA HERMANDAD  
John Grisham. Ediciones B
  4. LA IGNORANCIA  
Milan Kundera. Tusquets
  5. EL ALQUIMISTA IMPACIENTE  
Lorenzo Silva. Destino
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu*

## DISKOAK

1. GOIZ EDO NOIZ  
Etzakit
  2. GAUR ZUZENEAN  
Ruper Ordorika
  3. GERNIKA ZUZENEAN  
Mikel Laboa
  4. SABOR A MEXICO  
Bertin Osborne
  5. ASKATU KORAPILOA  
Dut
  6. STIFF UPPER LIP  
AC/DC
  7. ¿Y AHORA QUE?  
Reincidentes
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko*

**Usoa Pub**



☎ 943 76 38 57  
Irala 1



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Dantzatoki. 2. Legea. Burutu 3. Mirari. Bokala.
4. Ukapen. Nanao. 5. Infusio-mota. Bihi. Bizkaieraz, omen.
6. Atabal jolea. 7. Soldata. Ate, hitz elkarketan. Mila.
8. Uranioa. Gabarra. Eguzkia. 9. Kolore askotakoa. Haizen hori. 10. Adar moztua. Portua.

**Goitik behera**

1. Damua. 2. Jarduera. Aurrizki latinoa.
3. Oparo. Euskal Herriko herrialdea. 4. Istua. Iaiioak.
5. Sexu arra. Jardun. 6. Lehenengoa. Sagardoa eta ardoa edukitzeko zurezko ontzia. Rötgen.
7. Ergel. Sarrerak. 8. Eguzki aldera dauden aldeak. Bokala.
9. Modu atzikia. Hamabi. Landare-mota. 10. Momentua. Emakume izena.

**Soluzioa**

1. Damutasuna. 2. Artiketa. Ad.
3. Naro. Araba. 4. Iua. Abilak.
5. Zakia. Ari. 6. A. Upeia. R.
7. Lelo. Ateak. 8. Egutera. A.
9. Ki. XII. Ihi.
10. Unea. Amaia.

*Goitik behera*

1. Dantzelku. 2. Arana. Egin.
3. Mirakulu. E. 4. Uko. Ipotxa.
5. Te. Aie. El. 6. Atabalarra.
7. Sari. Aia. M. 8. U. Aia. Ekia.
9. Nabarra. Hi. 10. Adaki. Kaita.

*Ezker eskuma*

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

**San Martin plazatik aurrez aurre begiratuta, zenbat arku dauzka Errege Mintegiak?**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zela esaten zaie zurezko oinetakoei Bergarako euskaran?  
A- Txankulua  
B- Mokasinak  
C- Suekuak
2. Bergarar eskultore baten heriotzaren 100 urte beteko dira datorren astean. Zein?  
A- Koldo Eleizalde  
B- Simon Arrieta  
C- Martzial Agirre
3. Zenbat proba izango ditu aurten Euskal Herriko goitibehera txapelketak?  
A- Hamar  
B- Hamaika  
C- Hiru



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Emilia Elgarresta**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Emilia! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Alkartasuna** Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Codorniu**  
cava extra.  
Lehorra, erdilehorra edo brut  
**699 PTA!**  
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

**Hogeita bat urteko gazte hau Migel Altunan dabil mekanika ikasten. Asteburuetan, berriz, Etxagin lan egitten dau tabernari moduan, eta azkenaldi honetan, berriz, Gazte Lokalaren aldeko mugimenduan dihardu lanian jo ta su.**

**Gazte Lokalaren aldeko mugimenduko kide moduan, zer esango zontzake zeñi?**

Gazte sentitzen diran bergarar daneri esango notseke, zerbait lortzia nahi badabe, hori lana egindda lortzen dala; etortzeko, eta danon artian lortuko dogula zeozer. Merezi dabela.

**Noiz hasi ziñaten lokal bat eskatzen?**

Gazte jendia taberna zulotan egotiaz aspertzen hasi danian.

**Zenbat jende zabizte hor lanian?**

Hirurogei bat lagun.

**Orain arte zer lortu dozue?**

Lortu dogun inportantiena da, gazte jendia alkartzia eta elkar ezagutzia.

**Zelakua izango litzake zure ustez gaziendako lokal ideal bat?**

Autogestionatutakua eta bertan gazte guztiak inplikatzia.

**San Martzialeko akanpadan zer moduz?**

Esperientzia positibua izan da, duda barik.

**Herrixan, gazte lokalan temia alde batera lagata, zer aldatuko ziñuke?**

Jendia aldatuko nuke, bakoitza bere aldetik jun biharrian, alkarrekin hobeto eramatia gustatuko jaten.

**Txikittan zer izatia nahi ziñuan?**

Ez dakitt.

**Zure bizitzan zer edo zein botatzen dozu faltan?**

Sekula ez dot horrelakorik planzteatu.

## Hibai Careaga

**Tabernari lana gustatzen jatzu?**

**Zergatik?**

Bai, jendiakin momentu onak eta txarrak pasatzen ditzuzulako.

**Irakurtzia gustatzen jatzu?**

Bai, batez be historikuak.

**Irakurri dozun azkenengo liburua?**

Momentu honetan "El ultimo eslabon" dihardut irakurtzen.

**Periodikua, telebista ala irratia?**

Danetik pixkat.

**Egunkariko sail bat, irratsaio bat eta telebistako saio bat.**

Egunkarixan horoskopua, "La movida deportiva" irratsaiua, eta telebistan, berriz, pelikulak.

**Sinisten dozu horoskopuan?**

Bai. Bueno, segun eta zer jartzen daben.

**Asteburu baterako zein da zuretako plan egoki bat?**

Lo egittia.

**Eta oporretarako?**

Hondartza politt bat.

**Aste Santuan zer egin dozu?**


Formigalen egon naiz eskiatzen.

**Zure bertute bat eta defektu bat?**

Hori ez dotzut erantzungo.

**Zer eskatzen jatzu mende berrixari?**

Egunian egunekua.



## Ez ahaztu hegoaldea! UDA KO BRIGADAK

*Mexiko, Nikaragua, Kuba eta Kolonbia*



**BESTELAKO INFORMAZIOA (20:00etatik 22:00etara):**

**BERGARA:** 943 76 21 48

**BILBO:** martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03

**DONOSTIA:** eguenetan. 943 34 04 04

**GASTEIZ:** astelehen eta eguenetan. 945 14 93 79

**IRUÑA:** eguaztenetan. 948 20 60 55



**KOMITE  
INTERNAZIONALISTAK**



## Ospitaleko eskolan, 1933

Garai batean Ospitalean (gaurko Mizpirualde egoitzan) zegoen eskolako ikasleen argazkia ekarri dizuegu aste honetan. Argazkia Gerra Zibilaren aurrekoa da, 1933. urtekoa hain zuzen ere. Bertan agertzen diren ikasle gehienek lau bat urte izango zituzten orduan, eta eskolaurreko klaseak hartzen zituzten Ospitalean. Eskolaurrea amaitu ondoren, Mariaren Lagundiara joaten ziren beren hezkuntzarekin jarraitzeko. Garai hartan, Ospitalean, Gipuzkoako beste herri batzuetako barneko ikasleak zeuden, eta horrexegatik goiko ilaran azaltzen direnak ezin izan dugu jakin zeintzuk diren. Hara hor argazkikoen izenak, ezkerretik esku-mara:

**Aurreneko ilaran:** Mari Karmen Basterra, Mari Karmen Lasa, ezezaguna, Nati Albizua,

Mari Nieves Aranes, Mari Tere Etxaniz eta Asuntxi Iñarra.

**Bigarren ilaran:** Jesusita Rementería, Eulalia Biain, Kontxita Zabaleta, Isabel Aldai, Asuntxi Inza, Magdalena Akizu, Karmen Iñarra, Kontxita Castro, Juanita Moreno eta Lidia Ibarrola.

**Zutik:** Imelda Iturbe, Mari Paz Larrañaga, Mari Karmen Arizmendi, Jesusita Aranes, Otilora, Asuncion Albizua, Maria Pilar Lonarbide, Laurita Nuñez, Florita Izuskiza eta Mari Karmen Unamuno.

**Atzean:** Emili Muruamendiaraz (bosgarrena ezkerretik hasita) eta, bere ezkerrean, Gabi Lasa. Beste guztiak ezezagunak dira.

*Argazkia: Laurita Nuñez*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA



**zumelaga**

JATETXEA

**54 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



**16 urtetik  
aurrera**

- Integratzailea
- Euskalduna
- Anitza
- Doakoa

# 2000-2001 ikasturterako matrikulazio epeak

**Batxilergoak: maiatzaren 2tik 12ra**  
**Prestakuntza zikloak: ekainaren 1etik 12ra**

## **IPINTZA**

**BATXILERGOAK (DBHO)**

Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 31 42 / 20 82

Ordutegia:

09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

## **M. ALTUNA**

**PRESTAKUNTZA ZIKLOAK (LH)**

Ibargarai 1. Tf. 943 76 24 91 / 38 40

Ordutegia:

09:00etatik 13:00era



**SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA**

B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k




Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABAETA**



Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABAETA**

**expert** 



Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABAETA**

**FAGOR** 

# 50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**